BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO SAILA

4826

EBAZPENA, 2011ko urriaren 3koa, Herrizaingo Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendariarena, Emakumeen Kontrako Indarkeria Matxistaren Prebentzioari eta Biktima horien Arreta eta Berreskuratze Integralari buruzko Lege Aurreproiektua jendaurrean jartzen duena.

Emakumeen Kontrako Indarkeria Matxistaren Prebentzioari eta Biktima horien Arreta eta Berreskuratze Integralari buruzko Lege Aurreproiektua prestatu du Herrizaingo Sailak; eta Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak zehaztu bezala izapidetu beharko da aurreproiektu hori.

Xedapen orokorrek herritarren eskubide eta interes bidezkoei eragiten badiete, entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute, betiere aipatutako 8/2003 Legearen 8.1 artikuluarekin bat etorriz; eta euren izaera dela-eta beharrezkoa bada, jendaurrean erakutsi beharko dira.

Eta horren ondorioz, Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluarekin bat etorriz, aurreproiektua jendaurrean erakutsiko da; horretarako, 20 egun balioduneko epea egongo da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Eta azaldutako guztiagatik eta Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuaren 14.2.h) artikuluarekin bat etorriz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Emakumeen Kontrako Indarkeria Matxistaren Prebentzioari eta Biktima horien Arreta eta Berreskuratze Integralari buruzko Lege Aurreproiektua jendaurrean jartzea, hogei egun balioduneko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako eta alegazioak aurkezteko asmoz, Emakumeen Kontrako Indarkeria Matxistaren Prebentzioari eta Biktima horien Arreta eta Berreskuratze Integralari buruzko Lege Aurreproiektuaren edukia eskura egongo da Herrizaingo Sailaren Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzan (Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1ean) eta Herrizaingo Sailaren Internet-eko web-orrialdean: http://www.interior.ejgv.euskadi.net.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 3a.

Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendaria,
IÑAKI CALONGE CRESPO.